Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

# GARDENTASUN BETEBEHARRARI BURUZKO ADIERAZPENA

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak:…………………………………………………………………………………........................................ | |
| Honako hau ordezkatuz……………………………………………………………… | IFK: ………………... |
| Helbidea:………………………………………………………………………………………………….. | |
| Herria:………………………………………………..………………. | Posta kodea:……………….. |
| Espediente zenbakia: ..……………………………………………… | |

## Betebeharraren arrazoia:

○ **Diru-laguntza**

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak (2018ko 98. NAO, maiatzaren 23koa) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako laguntzen edo dirulaguntzen entitate pribatu onuradunen gardentasun betebeharrak arautzen ditu, bere 3.c) artikuluan xedatutakoarekin bat (ikusi 1. argibide jakingarria).

○ **Mezenasgoa**

- Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarriak ezartzen du mezenasgo sozialaren ondoriozko pizgarrien araubidera iristeko aurreikusitako prozedura. Araubide horren entitate onuradunek dirulaguntza publikoen entitate onuradunei ezarritako gardentasun betebeharrak bete behar dituzte

Hori ikusita, **ADIERAZTEN DUT** (hiru laukitxoetako bat markatu):

BALIOZKOTU | EZABATU

**KONFIDENTZIALTASUN ETA EGIAZKOTASUN KLAUSULAK ONARTZEA:**

☐ Konfidentzialtasuna:

- Jasotzen diren datu pertsonalak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak tratatuko ditu, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Gobernu Irekiaren atarian argitaratzeko, laguntzen eta/edo dirulaguntzen erakunde onuradunen publizitate aktiboko betebeharrak betez, maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3 c) eta 12.4 artikuluetan eta 59/2013 Foru Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Orobat, jakin ezazu zure eskubideak erabiltzen ahal dituzula lotura honen bidez https://www.navarra.es/eu/datuen-babesa. Informazio gehiego: https://gobiernoabierto.navarra.es/eu.
- Eskatutako datuak nahitaezkoak dira, eta egiazkoak eta zehatzak izan behar dute. Bestelakoak badira, indarreko legeriaren ondorioak etor daitezke.

☐ Egiazkotasuna:

- Aitortzen dut adierazpen honetan emandako informazio guztia egiazkoa dela.
- Badauzkat informazio horren egiaztagiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (tituluak, ziurtagiriak eta gainerako dokumentu ofizialak barne).
- Informazio hori egiazkoa dela aitortzen dut eta, bertan datu faltsurik egonez gero, nire gain hartzen dut haien ondorioz etor litezkeen kalte-galeren erantzukizuna

……………………… ……………………..

(Herria eta data)

Sin: (Izen-abizenak) ………………………………………………

Kargua:………………………………………………….

BALIOZKOTU EZABATU

**ADIERAZPENA EGITEN DUEN ENTITATE ONURADUNARENTZAKO ARGIBIDE JAKINGARRIAK:**

1. Foru lege horren 3. artikuluaren c) apartatuak ezartzen duenez, laguntzak edo dirulaguntzak, urtebetez, jasotzen dituzten entitate pribatuek gardentasun betebeharra dute bi inguruabar hauetako bat gertatzen denean:
   a) Jasotako zenbatekoa 20.000 eurotik gorakoa izatea urtean.
   b) Jasotako lzenbatekoa bere urteko sarreren % 20 baino handiagoa izatea, betiere gutxienez 5.000 euro egiten badute.

2. Pertsona fisikoek ez dute gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena aurkeztu behar.

3. Adierazpen hau eta kasuan kasuan eransten den informazioa telematika bidez aurkeztuko dira Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez, dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari zuzendurik.

4. Adierazpen hau igortzeko epea hilabetekoa da dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazten edo argitaratzen den egunetik hasita. Irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuaren 7. artikuluaren arabera, betebehar hori betetzen ez bada, ezin izanen da emandako dirulaguntza ordaindu.

5. Entitate onuradunak ematen duen informazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da. Informazio hori urtebetez egonen da eskura argitaratzen denetik. Epe hori pasatuta, hura argitaratzeko ardura duen unitateak ofizioz kenduko du, eta, hala egin ezean, entitate onuradunak eskatzen ahalko du kentzeko.

6. Adierazpen honi erantsitako dokumentuek ezin dute datu pertsonalikjaso, ezta eskuz idatzitako sinadurarik ere.
   Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.